

20 15 ME MO RIA



kutxa
FUNDAZIOA

Aurkibidea

➤ Aurkezpena	3
➤ Tabakalera	4-5
➤ Eureka!	6-7
➤ Ekogunea	8-9
➤ Onkologikoa	10-11
➤ Erakusketak	12-14
➤ Solidaritatea	15-17
➤ Aisialdia	18-20
➤ Kutxa Ikasgelak	21-23
➤ Lankidetzak	24-25
➤ Literatura eta musika	26-28
➤ Plan estrategikoa	29
➤ Donostia 2016	30
➤ Sare sozialak eta egoitza berria	31

Aurkezpena

Azkenaldian izan ditugun urte ekonomikoki zailetan ere, ez da zalantzan jarri Kutxaren konpromisoa Gipuzkoaren garapen ekonomiko eta sozialarekin.

2015ean ekonomia-eta finantza-adierazle guztietan izandako hobekuntzaren pertzepzioak, gizarte-jardueran krisi aurreko garaietan zegoenaren antzeko erritmoa berreskuratzea ahalbidetu zuen. Baieztapen hau Oroitidazki honen orrialdeetan egiazta daiteke, Kutxaren parte-hartzea laburtzen baitu gure lurraldea gizarte-jardueran erreferentzia-gune bihurtzen duten hainbeste eta hainbeste ekinbidetan.

Kutxaren esku-hartzea erabakigarria izan da Tabakalera - Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa sortzeko; irailean ireki zituen ateak, eta gertaera hori urteko kultura-izarra izan da.

Eta izar horrek gainerako jarduerak ere argitzen ditu. Adibidez, Onkologikoa, zerbitzu berriak eskaintzen dituelarik; Eureka! Zientzia Museoa, markak hausten dituzten zifrekin bere burua berritzen ari delarik; eta Kutxa Ekogunea, proposamen ekoiraunkorren katalogoa handitu duena. Erakusketa-eskaintza, Kubo aretokoaz haratago, Artegunea berrira ere luzatu da. Apustu gaztea #izanezberdin-en proposamen ausartetan dago. Balio segurua dira Kutxa lkasgelak. Eta herritarrei erakusteko beren elkartasun-aztarna, lan isila egiten da Gipuzkoa Solidarioaren bidez.

Eta argia beste lankidetzat batzuetara ere iritsi da, kultura-izaera dutenetara, batez ere. Eta horien artean dir-dir egiten du Donostia-Europako Kultura Hiriburuari babes globala emateko konpromisoak. Baina bada besterik, adibidez, Kutxa Irun Hiria Literatura Sariak berreskuratzea edo musika-ekintzetarako laguntza sorta.

Oroitidazki honek ez du inbentarioa bakarrik izan nahi. Kutxak bere gain hartu eta praktikatzen duen gizarte-erantzukizunaren adierazgarria ere bada. Horretarako 2015ean 21,288 milioi euro erabili zituen, eta guztira 63,281 milioiko baliabideen kudeaketa egin zen.



Tabakalera, urteko kultura-gertakizuna

Ziur asko, Tabakalera eraikin historikoan Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa irekitzea izan da 2015eko kultura-gertakizunik garrantzitsuenak Gipuzkoan. Sortze-prozesu luzea izan duen proiektu hau gauzatzeko azkenean erabakigarria izan da Kutzaren inplikazioa.

Inplikazio hori zentroa birgaitzeko Kutzak jarri dituen ia 14 milioi euroetatik haratago doa, bertan zenbait gune hartu baititu berak (5.600 m²) eta edukiak kudeatu. Diru-ekarpen handiaz gain, Kutzak laguntza erabakigarria eman du eraikin ikusgarriaren kudeaketa iraunkor bihurtzeko eta gizarteratzeko.


Kutzak Tabakalerara eraman du Gizarte Ekintzaren kultura-egoitza Kutxa Kultur markarekin, eta Kutzak kultura arloan Gipuzkoa osoaren eskura jarri nahi duen eskaintza zentro horretan ekoizteko helburua du. Gainera, Kutzak lankidetzakonpromisoa berretsi du Tabakaleraren esparruan beren kultura-ekosistema gauzaten duten gainerako eragileekin.

Kutxa Kultur-ek bizikidetza sustatzeko gune izan behar du, eta gainera plataforma kultura-eragileentzat eta proiektzioa duten artista amateurrentzat. Are gehiago, kultura-joera berrien bila ibili, bizimodu sozialago, iraunkorrago eta solidarioagoaren alde egin eta kultura globalaren onena atzeman eta bere inguruan horretaz gozatu nahi duen jendearen espirituaren sinonimo ere izan nahi du.

Kutxak azaroaren 12an ireki zituen Tabakaleran kudeatzen dituen guneetako batzuk: Kutxa Kultur Plaza, leku hibrido eta dinamikoa, irakurtzeko, lan egiteko, kontzertu txikiez gozatzeko, moda-erakustaldiak egiteko lekuarekin; Ruiz Balerdi aretoa, hitzaldi eta aurkezpenetarako; 30 urteko historia duen Kutxa Ikasgelak programa gauzatzeko gelak, eta berriagoa den Kutxa Kultur Class, sortzaile berriek ematen dituzten egile-tailerrekin; Artegunea erakusketa-gunea “Historia partekatuak” erakusketarekin, arte-ondareko lanik adierazgarrienak erakusten dituelarik; eta Kutxaren kultura-sailaren beraren bulegoak.

Inaugurazioa, Xabier Iturbe Kutxa Fundazioko lehendakaria buru zela, gizarte-gertaera garrantzitsua izan zen, eta 300 lagun izan ziren bertan, politika, ekonomia, unibertsitate, kirol, solidaritate eta, batez ere, Gipuzkoako kulturaren ordezkariak.

2016ko lehen hilabeteetan bigarren inaugurazio-fase bat izango da, bata bestearen ondoren irekiko baitira Kutxa Kultur Enea, non kultura-eremuko 40 ekintzaile baino gehiagoren artean sinergiak bilatzea sustatuko baita; Kutxa Kultur Fabrika, musika eta modaren munduko talentu berrientzako arte-egoitza gisa; Kutxa Kultur Kluba, ikuskizun-areto berezi eta bide-urratzailea; eta Kutxateka, bertatik kudeatuko delarik Kutxaren arte- eta argazki-ondarea (1,8 milioi irudi).



Animalia, natura bizia Eureka!-n



Eureka! Zientzia Museoak bisitari kopuruari dagokionez berriro markak hautsi zituen 2015ean: 186.582, hau da, aurreko urtean baino %11,5 gehiago, eta zientzia gizartera hurbiltzeko konpromisoa bete zuen, formatu, eduki, jarduera eta proposamen berriak sortuz. Nobedade nagusia maiatzean areto berria, *Animalia*, irekitzea izan zen, bere erakusketa iraunkorraren parte gisa.

Animalia-k hiru ekosistema bereizi ditu (oihana, basamortua eta itsasoa), izaki bizidunen 20 espezie baino gehiagorekin, 260 m² hartzen dituen oso instalazio berezian, horren bidez adierazten duelarik museoak bere hezkuntza-eginkizuna, hots, planetako beste izaki bizidunei zor diegun ezagutza, zaintza eta begirunea areagotzen saiatzea. *Animalia*-k bisita gidatuak ere eskaintzen ditu, eta horietan begirale espezializatu batek ekosistemen fauna azaltzen du eta arrakutsuak ez diren animaliak ukitzen uzten du.

Eureka!-ren beste nobedadeetako bat Planetariumean izan da, azpiegitura guztiaren berriztatze integrala egin baita. Planetariumean arrakasta handiko programa berri bat izan da 2015ean: "Dinosauroen ilunabarra".

Museoaren programa izarretako bat Bizitza Zientifikoaren Topaketa da, urrian bosgarren edizioan DBHko eta Batxilergoko 190 ikasle bildu zituena irakasleekin batera: zientzia, teknologia eta ikerketaren 14 arlo tematikotan lan egiten duten 41 profesionalen esperientzia partekatu zuten. Eureka!-ren ekinbide honek ikasleak zientziara eta ikerketara hurbildu nahi ditu, zalantzak argitzen eta kasu batzuetan zientziarako bokazioak itzartzen laguntzeko.

2015eko beste ekinbide nabarmenetako bat gazteentzako robotika-ikastaroa izan zen: bertan, talde-lan batetik abiatuta, gazte parte-hartzaileek hipotesiak ezarri zituzten, datuak hartu, emaitzak aztertu, irtenbideak proposatu eta sormen guztia hedatu zuten beren makinak egiteraino. Aipagarria, baita ere, garunaren astea, ikasle eta helduentzako pentsatua, DCBLren laguntzaz gauzatu.

Zeruaren behaketa museoak sustaturiko konstante bat da: ekinozioetan eta solstizioetan, martxoko eguzki-eklipsea bezalako fenomenoak gertatzean; edo udan Uxuera (Nafarroa) ohiko gaueko irteera antolatzen da, han, ia batere argi-kutsadurarik gabe, udako zerua ondo behatu daiteke eta. Udazkenean, astronomiako ikastaro aurreratu osoa eskaini zen Eureka!-n.

Museoko jarduera didaktikoa garrantzitsua da ikasturte osoan zehar, eta ikasleen hezkuntza-tarteetako bakoitzera egokitutako jarduera-proposamenak egin ziren lau hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Eta opor-garaietan, *zientzia txokoak* etxeko txikienentzat, hazkunde esponentziala izaten ari direnak.



Kutxa Ekogunea ingurumen eta ekologia arloko sentsibilizazio eta hezkuntzarako zentroa da, kontzientzia harrarazi eta jokabide eta portaera iraunkorren ereduak zabaltzeko nahi dituen, eta aurrera jarraitzen du ekoparkearen garapen handiarekin.

2015eko urtearen bukaeran urrats berria egin zuen Haur Parkea irekitzean, 0-12 urte arteko haurrentzako eta beraien familientzako gunea, kalitatezko pedagogia-irizpideekin diseinatua. Haurren sormena, autonomia eta psikomotrizitatea sustatzen dituzten egitura eta euskarriekin, lantegi edo tailerrak eta ikuskizunak ere eskaintzen ditu. Gabonetan, 4.518 pertsona izan dira parkean. Horietatik, 1.807 haurrak ziren eta 2.711 nagusiak, haurrekin etorriak. 252 haurrek hartu dute parte eskaini diren tailerretan.

Ez zen hori izan nobedade bakarra web-orri berriarekin hasi zen urtean. Bere laugarren edizioan, Euskararen Ginkana Euskal Herri osora zabaltzeko, eta Emaize sexologia-zentroak lortu zuen lehenengo saria (3.000 euro). Eta "furgobaratza" aurkeztu zen, baratze-parkeen sarean parte hartzen duten baratzezainei laguntza eta aholkularitza teknikoa emateko Gipuzkoan zehar dabilen ibilgailua.

Martxoan Kutxa Ekogunea Fundazioak, Oriamendi mendiaren jabeak, lursail horren 57.767 m² laga zizkion hitzarmen bidez Donostiako Udalarari erabilera publikoa emateko landa-parke eta jolasgune gisa. Lagatako gune horretan XIX. mendeko gotorleku bat dago, karlistena izandakoa. Oriamendi mendia Miramon parkearen eta Zabalegi, Lore Toki eta Chillida Leku sailen artean dago, eta Kutxa Ekoguneak 200.000 euro inbertituko



Haur Parke berria Kutxa Ekogunean



ditu bertan, lehendik ere egokitzen ari delarik gune hori, dagoeneko 4.000 zuhaixka eta 200 zuhaitz landatu eta bideak ere ireki baititu.


Ikaskuntzara eta sentsibilizaziora irekitako ekoparkearen ideiak ikastaro eta tailer ugari egitea ekarri du, batez ere baratze eta lorategiei buruz, baina baita ere sukaldaritzaz eta, beste eremu batean, LED argikuntzaz. Izar gonbidatua Heike Freire pedagogo izan zen, eta berak ikastaro bat eman zuen naturarekiko harremana indartzeko moduak familian ikasi eta esperimendatzeko.



Kutxa Ekoguneak kanpaina arrakastatsu batekin jarraitu zuen, hau da, Gipuzkoako jatetxeetan beirazko pitxerrak erabiltzea ur-botilen plastikoak duen eragina murriztu ahal izateko. Milaka pitxer banatu ditu, eta kanileko ura ateratzera bultzatu nahi du kanpainak, beste gizarte batzuetan normala den ohitura baina oraindik gutxi hedatua gure lurraldean. Eta ildo beretik, jarraipena eman zion *Ontziratuzaitetz!* Kanpainari.

Oso presentzia aktiboarekin hedabideetan, Kutxa Ekoguneak ekinbide ugari partekatzen ditu. GHK-rekin hitzarmena berri zuen baratze-sarea (726 baratze ekologiko) beharrezko konpostaz hornitzeko, horrela lurra mimatu eta ortuariak sano elikatzen; parte-hartze aktiboa izan zuen Bioterra azokan, 13.300 lagun igaro zirelarik Kutxa Ekogunearen standetik, baita Euskal Eskola Publikoaren festan (30.000 pertsona) eta Kilometroak-en ere (60.000 pertsona). Hitzarmena egin zuen SOS Arrazakeriarekin eta Zinemaldiaren esparruan, "Baratzeko estreinaldi handiak" kanpaina aurkeztu zuen umore kutsuaz Okendo plazan, standetik 10.500 bisitari igaro zirelarik hiru egunetan.





Logik-ek zerbitzu eta profesional medikoen katalogoa handitu du Onkologikoan

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailarekin duen hitzarmen garrantzitsua garatu eta zainteaz gain, hori baita Zentroaren iraunkortasunaren ardatza, Onkologikoak aurrera egin zuen 2015ean hitzartu gabeko jardura gehitzen, eta horretarako bere katalogoan lehen mailako osasun-zerbitzu eta profesionalak sartu zituen, marka baten inguruan bilduta: Logik. Horrek ospitaleko azpiegiturak eta teknologia hobeto ustiatzeko aukera ematen du.

Eskaintza hau handitzeak, adibidez, abangoardiako berregite edo berrosatze mikrokirurgikoa egitea ahalbidetu zuen maiatzean. Honela, Logik-eko kirurgialari plastikoen talde batek, Santos doktorea buru zuela, Onkologiko-ko kirurgialari orokor, anestesista eta erizainekin partekaturiko lanean, lehenengo ugatz-berregite edo berrosatze mikrokirurgikoa gauzatu zuen sabeleko ehunaz, Gipuzkoan egin den lehenengoa. Ebakuntzak zazpi ordu iraun zuen, arazo berezirik gabe igaro zen eta gaixoak, 48 urteko emakume mastektomizatuak, 5 eguneko epean jaso zuen senda-agiria.

Uztailean Ugalkortasunaren Euskal Institutuaren sorrera iragarri zen, hau ere Logik proiektuaren eskutik. Onkologikoak orain bere baitan hartzen du Institutu (IVF) hau, azpiegitura teknologiko modernoan hornituriko zentroa. Josu Franco doktoreak zuzenduta, bi ginekologok, enbriologo batek eta erizain batek osaturiko taldearekin, IVF da ugalkortasuna zaintzeko Euskadin dagoen lehen unitatea.

IVF Kutxaren ekitaldi-aretoan egindako saio batean aurkeztu zen gizartearen aurrean bere arduradunen eskutik; gainera, Madina eta Azparren doktoreak, Euskadin punta-puntan dauden urologoak, izan zituzten lagun, hauek ere Logik-eko parte direlarik. Eta IVFek protagonismo handia izan zuen Ugalkortasunaren Biologia aztertzeko Kurasaalen egindako biltzarrean, honek saria eman ziolarik topaketara egindako zientzia-ekarpenagatik.

Bestalde, Onkologikoa euskal enpresen partzuergo baten liderra da, sistema informatiko adimendun baten sorkuntzan lan egiten duena, honek osasunaren profesionali beren praktikatik ikasten eta tratamenduen emaitzak optimizatzen lagunduko die. Sistema honek tratamenduen kudeaketa-eredu benetan pertsonalizatua eta gaixoarengan ardaztua emango du: 3.0 ospitalea.



Kubo-Kutxa aretoak 15 urte bete zituen abenduaren 15ean. 2000. urtean ireki zen Jorge Oteizari eskainitako erakusketa handiarekin eta 15 urte bete zituen Gao Xingjian txinatar artista polifazetikoaren margolan, argazki eta filmen erakusketarekin, honi Literaturako Nobel saria eman ziotelarik, hain zuzen ere, Kutxak areto hau erosi eta publikoarentzat ireki zuen urte berean. Denbora honetan ia 1,8 milioi lagun izan dira bertan, aretoak 15 urte hauetan antolatu dituen 58 erakusketetako bat ikusten. Erakusketa horietatik 43 Arte Ederretakoak izan dira, 9 argazkigintzakoak eta 6 beste hizkuntza batzuetakoak: diseinua, moda, musika, zinema edo arkitektura. Erakutsitako edukien heterogeneotasuna izan da Kubo-Kutxa aretoaren ezaugarrietako bat.

Joan zen urtea "Irudi fantastikoa" erakusketari agur esanez hasi zen: margolan, marrazki, grabatu, argazki, film eta bideo-sorkuntzen bidez unibertso asaldagarri, anbiguo, ilun, naturaz gaindiko eta ameslaria aurkeztu zuen.


Haren txanda "Argi Basoak" erakusketak hartu zuen, Madrilgo José Manuel Ballester-ena; honek Argazkigintzako Sari Nazionala jaso zuen 2010ean, arkitektura-espazioaren eta argiaren tratamendu bereziagatik. Bere lana funtsezko hiru giltzarriren inguruan dabil beti: denbora, argia eta espazioa, eta sarritan hiri-esperientziaren konplexutasuna islatzen



Kubo-Kutxa aretoa: 15 urteko bizitza eta 1,8 milioi bisitari

Boulevard aretoen ziklo-amaiera

2015eko urtarrilean, Gabonetako jaiotzen ohiko erakusketa amaitzean, Kutxa Boulevard aretoek ia 15 urtez izandako erakusketa-jarduera bukatutzat eman zen. Denboraldi horretan artista asko eta garrantzitsuen lana ikusi eta miretsi ahal izan da bertan: Carlos Bizkarrondo, Ortiz de Guinea, Tomas Murua, Alejandrino Irureta, Rogelio Gordon, Ignacio Ugarte, Ascensio Martiarena, Jesus Olasagasti, Ortiz Etxague, Jacinto Olabe, Gustavo de Maeztu, Joxe Alberdi, Fernando Amarika, Antonio Oteiza, Alvarez de Eulate, Felix Arteta...



GAO XINGJIAN

Fado et cirque (Fado eta zirkua / Fado y circo), 2012

Argazkia / Fotografía

32,9 x 48,3 cm

du talka-gune berri baten bidez, gizabanakoa globalizazioaren aurrean jartzen duena. 27.500 lagunek ikusi zuten eta familientzako tailerrek arrakasta handia izan zuten: parte-hartzaileek margolan ospetsuak itxuraldatu egiten zituzten irudiak kenduz.

Udan emakume artisten erakusketa handia izan zen, XX. eta XXI. mendeetako emakume artisten sortze-lanetan egindako ibilbidea; hizkuntza eta teknika ezberdinek arte garaikidearen aldakortasuna ezagutzen laguntzen zuten emakumezkoen begiradatik. "Gorputz eta arima" erakusketak 59 artistaren 79 lan aurkeztu zituen, eta erakusketaren inguruko jarduera paraleloek, kontzertuek eta literatura-etzabaidek aretoa bete zuten deialdi guztietan. Kasu honetan ere familientzako tailerrak oso arrakastatsuak izan ziren: kaiolan zeuden emakumeei hegoak ematea proposatzen zuten, hitzen maitaleak, horiekin oso gora hegan egitea amesten dutelarik.

Txinako Gao Xingjian sortzailearen aipatu erakusketa, "Pizkunderako deia", izan zen aretoan urritik aurrera 2016. urtearen lehen egunetara arte. Kubo-Kutxa aretoaren erakusketa guztietan gertatu ohi den bezala, txinatar pinturaren teknikak esperimentatzea familia-tailerretan onarpen handikoa izan zen.





Artegunea, erakusketa gune berria



Artegunea erakusketa-aretoak, Kutxa Kultur-ek Tabakalera duen gunean, azaroaren 13an ireki zituen ateak publikoarentzat “Historia partekatuak” erakusketarekin, XX. mendeko gure inguruko arte-sorkuntzan egindako ibilaldia Kutxa Fundazioaren bildumako lanen bidez. Erakusketa ikusgai izango da 2016 urte osoan, Donostiaren Europako kultura-hiriburutzari egindako ekarpen gisa.

Artegunea Kutxaren arte-ondarea erakusten duen agertoki handia da, baina ez bakarra. Ondare horren sozializazioa 2015ean zabala izan zen, eta bere lanetako zenbait ikusgai izan ziren aldi batez Irungo Menchu Gal museoan, Malagako Carmen Thyssen museoan, Iruñeko Conde Rodezno museoan, Amaia kultura-zentroan, etab.

Bere aztarna solidarioa aurkitzeko herritar guztiei egindako gonbidapena izan zen Kutxa Solidarioaren jarduera-ardatza 2015ean.

2011tik *gipuzkoasolidarioa.info* sarearen sustatzailea da, eta honen helburua Gipuzkoako elkarteak aktibatzea da, eta bertan sorrarazten dituzten ekarpenen zabalkundea areagotzea. Honela, aurrera egin da ekinbide solidarioak pertsona guztiengana hurbiltzen, elkartasunaren balioetan oinarrituriko bizi-filosofia sustatzen, eta gizarte ireki, kohesionatuagoa eta aktiboagoa sortzeko ahaleaginean. Horretarako kanal sozial ohikoenez baliatzen dira: 2.323 'atsegin dut' Facebook-en eta 1.550 lagunek jarraitzen dute Twitterreko kontua.

Proiektu handinahi hau berriro egin zen ikusgai Elkartasunaren Jaialdian, laugarren edizioa izan zuelarik. Gainera, gune zabal batean izan zen lehenengo aldiz, Tabakalera eraikinean, eta formatu bikoitzarekin: sarea osatzen duten 123 elkarteetatik 35en erakusketa parte-hartzailea, eta elementu nagusi gisa hausnarketa-tailerrak migratzaile eta errefuxiatuen krisi humanitarioaz, SOS Arrazakeriak eta CEAR-Euskadik dinamizatuta. Arrakastatsua izan zen parte-hartze eta konpromiso aldetik, kolorez, berotasunez eta musikaz bete; baita ere gitarra flamenkoa, dantza latinoak, perkusio afrikarra gor talde baten eskutik, ipuin-kontalariak, betiko abestiak, jolas eta pailazoak, beste dinamizazio-elementu batzuen artean.

Elkartasun-bolada handia sortu zen udaberrian Nepal suntsitu zuen lurrikararen ondoren Kutxak aktibaturiko kontuan, markak hautsi baitzituen diru-bilketak: 186.000 euro. Dirua banatzerakoan, batetik,



Elkartasuna baita etorkin eta
iheslariekin ere



hondamendietan esku-hartzen eskarmentu handia duten elkarteak izan ziren kontuan: Mugarik Gabeko Medikuak-ek eta Gosearen Aurkako Ekintzak 66.000 € jaso zuen bakoitzak; bestetik, Nepalen bertan lanean ibilbide luzea duten hango elkarteak: Rokpa Euskadi, Paghma Drolma eta Drükpa Dön Yu elkarteek 18.000 € jaso zuen bakoitzak.

Helburu hori beteta, Europara babes bila iristen diren iheslariarentzat laguntza-estrategiak gauzatu ahal izateko dirua biltzeko aktibatu zen gero Kutzaren elkartasun-kontua, eta kontuak irekita jarraitzen du eta premiak gero eta handiagoak dira.

Kutxa Solidarioak-en proposamen inklusiboak ere sartzen dira, adibidez, 2015eko Olatu Talkaren testuinguruan, pertsona guztientzako aisialdi-eskubidea azpimarratu zuena. Zentzumenerako lau turismo-ibilbide antolatu ziren Donostiako Alde Zaharrean. Parte hartu eta beren berezitasuna jarri zuten Dandai, Begiris, Bidez Bide, Atzegi elkarteek eta Hegalak Zabalik Fundazioak, horiek gauzatzen lagundu zutelarik Plus55-ek eta Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak.

Gainera, jarraitu da oztoporik gabeko bainua errazten Hondarribia eta Getariako hondartzetan; odol-ematea bultzatzen Odol Emaileen Elkartearekin; sentsibilizazioa eta ikusgaitasuna sustatzen Real Sociedad Fundazioarekin eta Kilometroak-ekin; proiektu solidarioetan parte hartzen duten neska-mutiko sahararrak, ukrainiarrak, errusiarrak... Eureka! museora bisitak eginez kultura-ekipamenduez balia daitezten.

Prestakuntza KutxaZabal Zentroa

KutxaZabal zentroa Gizarte Ekintzaren prestakuntza sozio-asistentzialaren erreferentea da 2003tik, eta prestakuntza-jardueren katalogo zabala eskaini zuen 2015ean; iraupen askotako ikastaroak, batez ere pertsona nagusiei eta mendekotasuna dutenei erakundeetan eta etxean laguntza sozio-sanitaria eman ahal izateko. Hori guztia Nazaret Gizarlan-ek sustatuta.

Lanbide-ren zentro laguntzailea da eta Hobetuz-ek diruz lagundutako ikastaroak ematen ditu, hau da, lan-munduan sartzeko ikastaroak eskaintzen ditu, baita langileen etengabeko prestakuntzarako ere. Guztiak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztaturik daude. 2015ean zentro laguntzailea izan da, zuzeneko arretaren eremuko pertsonentzat gaitasun profesionalen aitortze-prozeduran.

KutxaZabal zentroak iaz 130 jarduera sustatu zituen berariazko prestakuntza eskatu zuten 2.024 pertsonen artean.



Kutxa Zeharo-ren hamar urte

Kutxaren Gizarte Ekintzak sustaturiko eta Gureak Taldeko Zeharo Fundazioak kudeaturiko Kutxa Zeharo enplegu-zerbitzuak joan zen urtean hamar urte bete zituen jardunean (2005-2015). Denboraldi horretan gizartean bazterturik geratzeko arriskuan zeuden 5.875 lagunen kontratazioa lortu du.

Eraitza hori lortzeko, zerbitzuak 25.000 lagun baino gehiago elkarrizketatu zituen, (2009tik) enplegua bilatzeko 11.500 pertsonari lagun egin zien eta 11.200 bisita egin zituen enpresetara.

Kutxa Zeharo-ren helburua da gizarte-bazterketaren arriskuan daudenak, enplegua lortu eta horri eusteko pertsona bereziki ahulak, lan-munduan sartzea. Bere jardura bi aldetara egiten du: enplegu-eskatzaillearen aldera eta enpresa kontratatzaileen aldera. Eskatzaileei babes eta laguntza integraleko sistema eskaintzen die, lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak baitira. Enpresei hautespen teknikoko zerbitzua eskaintzen die, baita informazioa eta aholkularitza ere kontratazio eta laguntzen, prestakuntza eta gizarte-erantzukizunaren arloetan.

Bost zentro ditu: Donostia, Arrasate, Eibar, Irun eta Zumarraga-n.

Hamar urteotan, Kutxak 6,1 milioi euro baino gehiago jarri ditu, eta 0,6 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu dagozkien lokaletan.

Kutxak 2015ean gazteentzat pentsaturiko programazioak protagonismo berezia eman zion 12 eta 17 urte arteko adin-tarteari, oso planteamendu bereziarekin #izanezberdin proposamenaren pean; debuta ekainean izan zen paper-kontzertu batekin Albaola Itsas Faktorian, parte-hartzaileak itsasontziz iritsi zirelarik bertara. Interpretatzaileak John Berkhout oiartzuarrak izan ziren, hauek, lehenengo txalupatik eta gero Albaolan lehorreratuta, kontzertu akustikoa eman zuten, musikarien eta ikus-entzuleen arteko solasaldi bizi-biziarekin batera. Musika paper-formatu horretan abenduan itzuli zen berriro Petti-ren kontzertuarekin Kutxa Kultur Tabakalera.

Ohargarria izan zen surf gaztearen inguruan ikasleek egindako sustapen-film laburren ikus-entzunezko lehiaketa: Kutxaren Andia aretoan proiektatu ziren eta, haratago, Surfilmfestibal ospetsuan. Lehiaketa honekiko lankidetzari esker, gazte asko doan hasi ziren kirol hau egiten, baita kirol-argazkigintzan ere. Antzeko maila lortu zen Hondarribia Blues Festival-ekiko musika-lankidetzan, talentu gazteen agertokira hurbildu ahal izan zirelarik musika taldeak #izanezberdin-en eskutik.

Eta irailean kirol gaztea iritsi zen: lehenik, Txurrukako triatloi-udalekuetan, Aia-Orioko Triatloi txiki eta herrikoiarekin amaitu zirelarik; gero, entrenamendu funtzionaleko CrossFit ekinbideekin eta Akuatloiarekin Kontxako hondartzan, Donostian. Abenduan musika, kirola eta elikadura batu ziren: hezkuntza-trebakuntzako erakustaldia

#izanezberdin, aisialdi gazteena



perkusió-erritmoan, koordinazioa, mugikortasuna eta gorputzaren kontrol osoa eskatzen duten mugimenduak lantzeko. Hori guztia hidratazio eta elikadurari buruzko aholku praktikoekin ziprztinduta.


#izanezberdin-ek protagonismo berezia izan zuen teknologia-topaketa berezi batean: Donostia Robotics & Videogames Meeting 2015, Camp Tecnológico-k sustatzen duena Gizarte Ekintzaren laguntzaz, eta hezkuntza-robotikako jarduerak egin ziren, bideojokoen programazio eta garapena, diseinua 3D-n eta Minecraft, baita grabazioa gailu mugikorrek eta autoedizioa, bideoklip bat sortzeko tailer osoaz gain, gero Youtuben argitaratu zena.

Baita programa tradizionalak ere

Arotz Eneako udalekua izan zen berriro erreferentzia-lekua, Gipuzkoako neska-mutikoen natura bertatik aurkitu eta balioesteko, eta errespetatzen eta zaintzen ikasteko. Plazaolan zehar ibili ziren bizikletan paseoan, basora txangoak egin zituzten, Mendukiloko haitzuloak ikusi zituzten, zuhaitzetan gora igo ziren, pilotalekuan jolastu eta igerilekuan bainatu ziren... Eta familiek udalekuko eguneroko bizitza jarraitu ahal izan zuten horretarako prestatu zen blogaren bidez. Ingurumen-eskola honetan 571 parte-hartzaile izan ziren; eta horiez gain, 2015ean 71 ikastetxetako 3.575 ikasle izan ziren Etxarri-Larraungo egoitzan aisialdia, kultura eta bizikidetzaz uztartzeko.

Kutxabankek Kutxa Fundazioaren bidez sustatzen duen Gaztedi programak iaz udalekuak ingelesez ere eskaini zituen Picos de European, kirol-kutsukoak Orioko Oribazar hondartzan, baita familian egin daitezkeen programak ere, adibidez, landa-jarduerak Zestoako Sastarrain baserrian.

Eta, jakina, ohiko programak ere gauzatu ziren, adibidez *Donostia Ezagutu*, berrikuntza batzuekin: egun osoko txangoetan Gipuzkoa ezagutzeko aukera Zumaia eta Getariara joanez. Eta arte-esperientziak hiriko eskultura publikoak ezagutzeko, ezohiko eta ustekabeko ikuspegietatik. Explorer programak ere, Donostia, Irun, Errenteria, Zarautz, Deba eta Tolosan garatuak, berrikuntzak izan zituen bere proposamenean, hurrek, ingelesa ikasi edo hobetzeaz gain, jolas- eta kultura-jarduerak ere egin ditzaten taldean.





Bekak eta sariak gazteei laguntzeko

Euskal gazteen prestakuntza bultzatzea, lan-munduan errazago sar daitezzen, Kutxaren lehenetasunetako bat da, eta hori zenbait ekinbidetan agertzen da: beka-programa, enpresetan lan-praktikak egiteko ibilbide, ikerketarako edo arte- eta kultura-sorkuntzarako laguntza eta abarretan.

Honela, Gipuzkoako 333 gaztek ikasturte hau osorik edo zati batean Europako Batasuneko goi-hezkuntzako ikastetxeetan egin ahal izango dute, Kutxaren Gizarte Ekintzak finantzatu eta Kutxabankek kudeaturiko Erasmus beken laguntzaz. Horietako gehienak EHUn ari dira ikasten: hautaturiko ikasleen %62 unibertsitate horretakoak dira, %18 Deustuko Unibertsitatean dago matrikulaturik eta gainerako %20 Mondragon Unibertsitatean eta beste zentro batzuetan.

Bestalde, eta Erasmus egiten duten ikasleekin lotuta, joan zen ikasturtean sei unibertsitate-ikasle atzerrian egon ziren, eta esperientzia horretan oinarrituta, ideia erakargarri eta landuak aurkeztu zituzten gure ingurunea hobetzeko, ondorioz Altuning Pro Gipuzkoa lehiaketaren irabazle izan zirelarik; hau Gizarte Ekintzak babesten duen programa da, Ignacio Manuel de Altuna azkoitiarra omentzeko sortua.

Eta sariak aipatzen jarraituz, 52 gazteri, gehienak neskak (28), ikasten egindako ahalegina aitortu zaie Karrera Amaierako Kutxa Sarien 39. edizioan; ospakizun hunkigarri honetan, saritutako ikasleekin batera, beraien senitartekoak, adiskideak eta ibilbide akademikoan lagun izan dituzten irakasleak elkartu ziren.

Gainera, *Kutxak Talentuaz Baliatuz-Compite con talento* programa bultzatzen du, eta honek 220 egitasmoko gauzatu nahi ditu gaikuntza handiko euskal gazteen talentua eta gaitasuna enpresa-ehunera transferitzeko helburuaz. Programan sartzen diren gazteek prestakuntza-ekintza bat gauzatzen dute enpresetako praktikei atxikita.



Kutxa ikasgelen entziklopedia-bokazioa

Kutxaren Gizarte Ekintzaren aisialdi- eta kultura-programazioa ohiko Kutxa Ikasgelen inguruan antolatzen da. Kutxa Ikasgelak programa duela 30 sortu zen; garai hartan kultura, prestakuntza, aisialdi eta hezkuntzak osatzen duten gizarte-arloan proposamenak gaur egun baino askoz urriagoak ziren, eta premiak, gabeziak bezalaxe, gaur egun baino handiagoak. Kutxaren Gizarte Ekintzak pentsatu zuen herri-erakundeek eskaintzak ez zuela tarte bat betetzen eta hori eskaintza pribatuari ere ez zitzaioela, nonbait, interesatzen; beraz, horixe zela bere jokalekua.

Hainbeste denbora igarota ere jarraitzen du horrela izaten, nahiz eta inguruabar edo zirkunstantziak oso bestelakoak izan, eta eskaintzak eta eskariak ere asko aldatu diren, horrek etengabeko egokitze-prozesura behartzen duelarik. Honela, 2015eko katalogoan, Kutxa Ikasgelen programazio zabalak 250 jarduera proposatu ditu arlo hauetan: ingurumena (fruta eta barazkien kontserba), arte-sorkuntza (argazkigintza, imitaziozko bitxigintza), literatura-arteak (nobela beltza eta narrazio-tailerrak), bizi-kalitatea eta norberaren garapena (xakea, risoterapia...), dantza eta antzerkia, gastronomia, hizkuntzak, informatika eta komunikazioak, marrazketa eta margolaritza, osasuna eta ongizatea, jantzigintza... eta hitzaldi sorta zabala.

Hitzaldiak Kutxa Ikasgelen programazioan osagai garrantzitsua dira. Kasu batzuetan Ikasgelak programaren beraren ekimenez, eta beste batzuetan gure herrialdeko beste kultura-eragile batzuekin lankidetzan, hitzaldiak, entziklopedia-espirtua dutenak, askotariko gaietako buruzkoak izaten dira.

Adibidez, 2015ean hizpide izan dira gai hauek: sukaldaritza, Murilloren lanen bidez; ederra eta makurra ikustekoaren desorekan; Maien ibilbidea Mexikon; Araba, bidegurutze gisa; Tomas Mororen utopia eta hiri idealari buruzko eztabaida; Eguzki erregearen eta Maria Teresa Austriakoaren ezkontza 1659an Bidasoan; elikadura, ohiturak, osasuna eta gaixotasunak; pertsonaren nahia eta bere ondarea testamentuetan; elikadura, nutrizioa eta minbizia; kontsumoa eta diskurtso kapitalista; euskaldunak eta bigarren mundu-gerra; emakume artistak mundu digitalean; Txinako maisu-lanak; ametsen interpretazioa; makroekonomiako oinarriko kontzeptuak; Indonesia eta hango uharteak; Gipuzkoako arkeologia-altxorak; ondare immateriala eta euskal nortasuna kultura-aztarnen bidez; Donostiako Gros auzoa edo Zisterreko ordenaren etorkizunaren erronkak.

Kutxa Ikasgelen kultura-topaketek bestelako formak hartzen dituzte batzuetan. Adibidez, antzerkia Teatro Estudio-ren eskutik; baita ere antzerkia, baina Ikasgelak programako ikasleak antzezle bihurtuta; zine-dokumentala edertasunaz eta zahartzeaz; edo ibai baten bidez Usandizaga eta Ravel musikariak batzen dituen dokumentala...

Bi Nobel Sari zientziaz mintzatu ziren Kutxa Aretoan

Donostia International Physics Center-ekiko (DIPC) lankidetza estuaren emaitza, Kutxaren ekitaldi-aretoan bi Nobel saridun izan ziren: John C. Polanyi-k —Kimikako Nobel saria jasotakoa 1986an erreazio kimikoetako mugimendu molekularrean egindako ikerketagatik— “Nola egiten dira aurkikuntzak eta zergatik da garrantzitsua” gaiaz hitz egin zuen. Hori ekainean izan zen. Urrian David Wineland etorri zen, 2012an Fisikako Nobel saria jasotakoa, aitzindari-lan esperimentalak egin zituelako banako partikula kuantikoekin. Honen aurkikuntzek egungo ikerketaren oinarriak jarri dituzte fotonikan: fotoi edo argi-partikulen propietateez baliatzen da teknologia berriak sortzeko eta lege fisikoen ulerkuntzan sakontzeko.

Ez ziren horiek izan lankidetza bakarrak DIPCekin. Aurrez, urtarrilean, Juan José Gómez-Cadenas-ek hitz egin zuen leku berean neutrinoei buruz; eta maiatzean Manuel Toharia mintzatu zen klima-ereduen perfekziorik ezaz.

John C. Polanyi - Premio Nobel Saria
How discoveries are made and why it matters

Kutxa Andia Aretoa
24 Junio



Kutxa Kultur Class sendotzen ari da

Kutxa Kultur Class sormen gazte eta hurbilekoaren plataforma da, bestelako aisialdi eta kultura-prestakuntzako proposamenetara irekia dagoen jende gazte eta kezkatsuairengan pentsatua, eta 2015ean, bere bigarren edizioan, finkatze-maila handia lortu zuen. Bere programazioa —diseinu, teknologia berri, moda, arte, musika eta gastronomiaren inguruko tailer edo lantegiekin, eta guztien atzean sormena dagoelarik— badoa indar hartuz bere xede duen publikoan.

Musika eta modaren inguruko jarduerak izan dira ikusgaitasun handienekoak. Kutxa Kultur Musika-k Gipuzkoako sei talde hautatu zituen: Eraul, Ghost Number & Gipsy Topsy, Los Bracco, Albert Cavalier, Pet Fennec eta The Young Wait, eta iraileko lehen asteburuan Igeldoko (Donostian) eta Tibidaboko (Bartzelonan) jolas-parkeetan jardun ahal izan zuten.

Modari dagokionez, masterclass edo irakaspén-hitzaldiak izan ziren, desfileak eta pop-up bat ere bai Kutxa Kultur Plazan, Tabakaleran, non erakutsi eta salerosi baitziren bertako dozena bat sortzailerén jantzi eta osagarrien diseinuak. Diseinatzaile hauek hartu zuten parte: Alex Robe, Tytti Thusberg, Sara Guilarte, Ali de Bali, Naiara Alarcia, Ana Olazabal, Leire Laparra, Tocados Oh-Oihana Hernaiz, Azabala, Número 9, Elena Silvestre, Diego Besné eta Amaia Estanga-k.

Ahal den neurrian, Gipuzkoa osoan hainbat ekinbideren sustatzaileekin lankidetzakonpromiso historikoak mantentzeko Kutxak egindako ahalegina agerian geratu zen berriro 2015ean. Adibide gisa aipagarriak dira:

- Egungo gatazka armatuetan giza eskubideen inguruko hitzaldien zikloa, Gurutze Gorriak eta RSBAPEk batera sustatua, lehenengoa kolektibo adiskide gisa bigarrean sartu zenean.
- Tolosa Topic-en programazio zabala: “Una niña” lanaren antzezpena, urtarrilean; kaleko musika antzerkiaren eta objektu-antzerkiaren arteko topaketa, otsailean; antzerki greziarra martxoan; Amaiur jardunaldiak, CITen ekimenez, apirilean; “Quadri” italiar ikuskizuna, maiatzean; Titiriguri madrildar taldea, ekainean; Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdiaren 33. edizioa, Titirijai, azaroan; munduari bira 80 kaxetan, abenduan.
- Apirilean, Liburuaren Nazioarteko Egunaren ospakizuna, Gipuzkoako Liburu-saltzaileen Gremioarekin batera, aurten bi emakume saritu zituelarik: Elgoibarko Danele Sarriugarte eta Irango Parinoush Sanlee.
- Kresala zineklubaren zinematografia-proposamenak, orain Trueba zinemetan ematen direnak.
- Arte eszenikoen arloan hitzordua, DFeria, 28 taldek 29 ikuskizun eman zituztelarik.
- *Urnieta, de Tierra a Villazgo (1402-1615)* liburua argitaratzea hiriaren 400. urteurrena oroitarazteko.
- Andoaingo historiaren laburpena egiteko bekaren deialdia, Leycaur aldizkarian argitaraturiko azterketetatik abiatuta.

Lankidetzakonpromiso iraunkorra



- Larramendi Forum-ak sustaturiko hitzaldi-zikloa, eta bertan izan ziren Herrero de Miñón, Daniel Innerarity, Bernardo Atxaga, Isabel Wences eta Sebastián Mora.
- Errenteriako Musikastek, aurten gazteriari eskainiak, maiatzean 43. edizioa bizi izan zuen eta Usandizaga omendu zuen.
- Baita ere Errenterian, Euskal Herriko Eskulangintza Azoka: 60 artisau edo eskulangilek beren produktuak erakutsi eta saldu zituzten.
- Arte Garaikidearen Nazioarteko bigarren Azoka, DonostiArtean, Kursaal-en egina.
- FiSahara zinemaldiko film adierazgarrienak eman ziren, 12 urte daramatzalarik basamortuan egiten.
- Irailean Gipuzkoa Belaontzi Estropadaren seigarren edizioa: Donostiatik irten, Mutrikun buia hartu eta Hondarribira iristea.
- Kutxa Sari Handia latxa ardien esneaz egindako gazta-lehiaketan, Ordizian: 2015ean Zeanuriko Ipiñaburu gaztandegiak irabazi zuen.
- Auditorium Nazionalean Verdi-ren Requiem Orfeoi Donostiarrek emana.
- Khami aurkeztea, ezohiko musika-esperientzia, euskaldunen herri-kulturaren ezaugarrietan askatasunez esploratzen duena.
- Tolosako Abesbatzen ohiko Lehiaketa, Europa osoan ospe handia duena. 47. edizioan, Kutxa Sari Handia Vierzon-go (Frantzia) Mikrokosmos abesbatzarentzat izan zen.
- Joxe Antonio Artze-ren lanean zehar bidaia bat den erakusketa multimedia instalazio baten bidez; 2016ko otsailera arte ikus daiteke San Telmo museoan.
- Menchu Gal-en pintura-lanen proiektu ibiltaria urrian Erromara iritsi zen, eta italiar hiriburuko Cervantes Institutuak hartu zuen han.
- Gipuzkoako bertsolari txapelketa, irailean 43 parte-hartzaileekin hasia, abenduan amaitu zen, eta txapela Beñat Gaztelumendik jantzi zuen.
- Euskal Herriko folklore-talderik garrantzitsuenetako bat den Eskola-ren 75. urteurrena ospatzea.

2013ko parentesiaren ondoren, Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariak berreskuratzea izan zen kulturgintzako albiste nagusietako bat, Kutxaren eskutik etorri zena. Eta literatura-sorkuntzaren eremuan albistearen pozarren hartu zen. Ohi bezala, eleberri eta olerki ataletan deituak, euskaraz eta gaztelaniaz, parte-hartzearen aldetik markak hautsi ziren sarietan, guztira 459 lan jaso baitziren.

Abenduaren 19an, irungo Areto Kapitularrean egindako ekitaldi solemne batean, hiriko alkatea eta Kutxako lehendakaria bertan zirela, idazle irabazleen izenak eman ziren argitara: Ana Muela, Madrilgo idazlea, “El falso cuerno del rinoceronte” eleberriarekin gaztelaniaz, eta Juan Luis Zabala gipuzkoarra, “Txistu eta biok” eleberriarekin euskaraz; Almerian bizi den Ramón Crespo bartzelonarra “Las hojas enfermas” olerkiekin gaztelaniaz, eta Asier Serrano, hau ere gipuzkoarra, “Ate osteko itzalak” olerkiekin euskaraz.

Sari-ematea 2016ko apirilean izango da: 25.000 euro eta garaikurra eleberri-irabazleentzat eta 15.000 euro eta garaikurra olerki-irabazleentzat. Diru-kopuru garrantzitsu honi saritutako lanak argitaratzeko erabakia gehitu behar zaio, hau ere garrantzitsua.

Kutxa Argitalpenak

Argitalpenen mundu honetan, baita ere abenduan, Donostiari buruzko Azterketa Historikoen Buletinaren liburuki berri bat aurkeztu zen, Kutxaren Gizarte Ekintza den Dr. Camino Liburutegiak argitaratua. Buletina 48.a izan da eta zortzi azterlan ditu, honela deitzen baitira ikerketa-lan argitara gabeak, betiere interes orokor eta zabaleko gaien inguruan, bereziki Donostiaz, bertako gauzez eta jendeaz; eta neurri txikiagoan, Gipuzkoaz ere bai, oro har.

Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariak indartsu itzuli dira berriro



Etenaldirik gabeko parte-hartzea musikaren munduan



Musika-adierazpenei laguntzea da Kutxak Gipuzkoako kultura-panoraman duen inplikazioaren alderdirik esanguratsuenetako bat. Eremu honetan etenik gabe egin ziren esku-hartzeak 2015 osoan: urtarrilean Jose Maria Usandizagari omenaldia haren heriotzaren mendeurrenean, Euskadiko Orkestraren kontura Caballé-Domenech-en zuzendaritzapean; eta abenduko azken egunean, Amaya Arberas sopranoaren eta Ana B. García piano-jotzailearen errezitaldia.


Hainbat eszenatokitan, askotariko musika-generoetan, Kutxaren Gizarte Ekintzak, EOS (OSE) lagundu zuen Orfeoi Donostiarrarekin jo zuenean, baina baita Euskadiko Orkestra Gaztea ere, Tchaikovsky eta Guridi interpretatu zituenean. Miramongo Matinéetan Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kideek programak ikertu, esperimentatu eta diseinatzen dituzte, musika sinfonikoaz aparteko erreperitorioak lantzeko, eta 15 programa eskaini zituzten urtean zehar, musikagile handi guztien musika interpretatu zutelarik horietan. Ziur asko Matinée horien gailurra ekainean lortu zen EOSen zuzendari titularrak Berliozen Sinfonia Fantastikoaren interpretazioan parte hartu zuenean.

Gizarte Ekintzak ganbera-musikaren proposamenari ere eutsi egin zion, Gipuzkoan dagoen honelako bakarra, eta emandako lau kontzertuetan entzuleen aintzatespena erabatekoa izan zen. Kantua berriro igo zen Andia aretoko agertokira, Miramar eta Erinias hirukoteez eta Kairos laukoteaz gain. Andia aretoan beste musika-ekitaldi batzuk ere izan ziren, adibidez, askotan saritutako Josu Okiñena piano-jotzailearena, eta Ainhoa Zubillaga mezzoaren eta Olatz Saitua sopranoaren emanaldia, pianoan Iñaki Salvador lagun zutela.

Eta beste ekintza batzuk ere lagundu zituen Kutxak, adibidez, Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak (Hauspoz) sustatzen duena, abenduan "Arrasate Hiria" Nazioarteko Akordeoi Lehiaketaren XXIII. edizioa egin zuelarik, musika-instrumentu honen inguruko beste bi ekintzarekin paraleloan: Gipuzkoako XXXVI. Akordeoi Lehiaketa eta Gipuzkoako XXVIII. Akordeoi Jaialdia. Arrasateko lehiaketa ospetsuaren irabazleetako batek, Marko Sevarlic serbiarrak, akordeoi-kontzertu erakargarria eskaini zuen Kutxako ekitaldi-aretoan Donostian.

Juan Ignacio Iztueta dantzari eta idazlearengana hurbiltzeko era bat proposatzen zuen ikuskizuna —musikaz, dantzez eta antzerkiz osatua— ere lagundu zuen Kutxak; 1824an Gipuzkoako dantzak biltzen dituen ezinbesteko liburu bat argitaratu zuen idazle honek. Eta beste maila batean, Kurasaal Eszena-rekiko lankidetzak Kurasaaleko auditoriumean Galiziako Real Filharmoníaren ekitaldia ahalbidetu zuen eta agertoki horretara "Carmen" mitoaren bertsio berritzaile bat iritsi zen balleteko bertsioan.





2018ra arteko Plan Estrategikoa

Aurrezki-kutxa 2014an banku-fundazio bihurtu ondoren, Kutxa bere figura juridiko berrian sendotu da 2015ean, eta horren arabera Plan Estrategiko berria egin du 2016-2018 denboraldirako.

Plan Estrategiko honen helburua Kutxaren xedea gauzatzea da: Gipuzkoako ekonomia eta gizartearen garapena sustatzea, horretara egokitzen dituelarik banku-fundazioaren Misioa, Ikuspegia eta Balioak, lortzen diren emaitzen bidez konstatatzeko moduko kudeaketa-ereduarekin.

Kutxaren asmoa Gipuzkoako ekonomian aurrezki-kutxa zaharraren eginkizunean mantentzea da eta, ahal bada, hobetzea, eta bere indarra bere ondarearen inbertsio egokian jartzen du, honen etekina gizarte-jardueraren bermea baita.

Gizarte-jarduera horretan, Plan Estrategikoak jartzen duen abiapuntua jarduera-eredu autoiraunkorrarena da: Kutxak gizarte-proiektu iraunkorretan inbertitzen du, bere "jabetzakoak" ez diren proiektuetan, balio pertsonal eta sozialen garapena bultzatzen duten elkarte eta erakundeek proposatzen dituztenetan.

Kutxa lurraldean duen presentzia areagotzen ari da Miramongo Arbide dorreetan duen egoitza berritik, eta bere gizarte-jardueraren ezaugarri diren ikur handiak mantentzen ditu: Onkologikoa, Eureka! Zientzia Museoa, Kutxa Ekogunea, Kutxa Kultur Tabakaleran eta Kubo-Kutxa aretoa. Horietako bakoitzak bere jatorrizko helburuarekin jarraitzen du, eta guztientzat bilatzen du, ahal dela, sortzen dituen diru-sarreraren eta dauzkan gastuen arteko oreka.

Erakunde publiko eta eragile pribatuekin lankidetzan gauzatzen duen gizarte-jarduerari dagokionez, Plan Estrategikoaren helburua da diru-laguntzatik proiektu iraunkorrak bultzatzera igarotzea, eta hor Fundazioa laguntzaile izango da, ez kudeaketaren arduraduna.

Kutxaren Plan Estrategikoak berehalako bi ekinbide planteatzen ditu, nobedade gisa: urteroko laguntza-deialdi bat eta Kutxa Gizarte Behatokia sortzea.



Kutxa, DSS2016EU-ren babesle globala


Kutxa Fundazioak eta Donostia / San Sebastián 2016 Kulturaren Europako Hiriburua egitasmoak hitzarmena formalizatu zuten, eta banku-fundazioa kultura-proiektuaren babesle global bihurtu zen. Keinu horrek beste erakunde eta enpresa batzuei ere jarraibidea erakusten zien, eta Kutxak, bere gain hartzen duelarik Gipuzkoako kultura eta ekonomia sustatzen dituzten ekinbideak bultzatzeko erantzukizuna, bere irudia lotzen zuen gure herrialdearentzat hain berezia den proiektu honekin eta kulturarekiko duen konpromisoa sendotzen zuen.

Hitzarmena Eneko Goia hiriko alkateak eta Xabier Iturbe Kutxako lehendakariak izenpetu zuten, eta horren arabera Fundazioak diru-ekarpen garrantzitsua egingo du, eta aldi berean bazkide estrategiko bihurtuko da DSS2016EU kultura-proiektuaren eraikuntzan. Hitzarmena lortzea errazagoa izan zen bi erakundeak denbora daramatelako elkarlanean zenbait kultura-proiektu sortu, eraiki eta diseinatzeko, horien emaitza 2016an eta etorkizun hurbilean ikusi ahal izango delarik.

Kutxa hautagaitza-proiektuaren babesle izan zen Donostia Europako Kultura Hiriburu izendatzeko aurretiko prozesuan, eta programako ekinbide zehatz batzuetarako, adibidez Olatu Talka-rako, bere laguntza emana zien, honen lehenengo hiru edizioak Kutxaren Gizarte Ekintzak finantzatu baitzituen, batez ere. Beraz, ibilbide luzeko lankidetzeta da hau.

Egoitza berria Kutxa Fundazioarentzat

Arbide dorreak, Miramongo Teknologia Parkean, 2015eko irailetik Kutxa Fundazioaren egoitza berria dira, Donostia erditik leku enblematiko horretara aldatu baita. Arbide dorreetan daude kokatuta Fundazioa gobernatzen duen Patronatua, Zuzendaritza Nagusia, Administrazioa eta Kutxaren Gizarte Ekintzaren jarduerak gauzatzen dituzten sailak, baita Komunikazio-arloa ere.



Gero eta presentzia handiagoa sare sozialetan

Erabat finkatuta asteroko newsletterra Kutxak gipuzkoar gizartearekin komunikatzeko duen bide gisa, Fundazioa gero eta gehiago ari da sartzen sare sozialetan. Gaur egun Kutxa Facebook, Flickr, Vimeo eta Youtube-n dago, kanal honetan ikus daitekeelarik Kutxa Kultur ere, baita Instagram, Twitter eta Facebook-en ere. Kutxa ahalegin garrantzitsua ari da egiten baliabide sozial berriak erabiltzeko, ohiko komunikazio-kanalez gain.

2016an, Kutxak webgunea (www.kutxa.eus;) estreinatuko du; izan ere, ahalegin handi samarra egin zuen hori eraikitzen 2015ean.

